



A25 – 2018

LH – 2. Zikloa

(3. eta 4)



Berdintasunaren Batzorde Mistoa
Comisión Mixta de Igualdad

Gizarte Ongizatea
Bienestar Social



Ayuntamiento de
Portugaleteko Udala



2017

PROPOSAMENA

AZAROAK 25 - 2018

Emakumeen aurkako indarkeriari ez

3 eta 4 mailan, jolas mota ezberdinak aztertuko dituzte eta ikasleak, bere osotasunean garatzeko jolas, joko eta ekintza zerrenda bat egingo dituzte, gero, 5 eta 6 mailako neska mutilei pasatuko diete haien jolas, joko eta ekintzak, hauek kudeatzeko eta Patioaren antolaketan sartzeko. Horretarako bi saio edukiko dituzte.

Lehenego Saioa: tutoretza saioan... patioan ematen diren joku, jolas eta indarkeriei buruz hitz egingo dugu.

00.00-00.15 Aztertu dezagun patioa!

- Zertara jolasten dugu?
- Guztiok jolasten duzue elkarrekin?
- Zelako harremanak ematen dira patioan?
- Non jolasten dira joku batzuetara eta non beste batzuetara?

Tutoreak idatziko dituzte arbelean ikasleek esandako jolasak eta jokoak eta eskatzen diete ikasleei idazteko paper batean zer bultzatzen duen joko bakoitza. Denon artean gogoeta bat egingo dugu; Non jolasten dugu horretara? Zelakoa da daukagun esparrua? Non kokatuta dago? Badaukagu lekua eta materialak horretara jolasteko?

00.15-00.25 Non egiten ditugu joku, jolas eta ekintza horiek?

Orain, beste jolas joku eta ekintzak jarriko ditugu irudien bidez. Ikusitakoen artean, zeinetara jolasten dugu? Non? Zergatik ez dugu beste jolasetara jolasten? (patio eta ekintza anitzen irudien eranskinak)

00.25-00.50 Aukeratu, irizpide hauen arabera (joku eta jolas ez sexisten gida) eta jolas dezagun! Jolas hauek garatzeko, sokak eta koloretako klarionak izango ditugu. Hiru talde egiten ditugu eta hiru taldeak, pasatzen dira hiru jokuetatik.

00.50-00.55 Sentimendu eta emozioen rondatxoak. Irakaslea eskatzen die kontatzeko zelan dauden, nola sentitu diren, ondo ala txarto pasatu duten eta indarkeriren bat ikusi badute ala giro ona egon bada denon artean.

2. saioa: Tutoretza saio honetan... haien emozio eta gatazkekin konektatuz, onuragarri, kooperatiboak eta inolako indarkeriak sustatzen ez duten joku, jolas eta ekintza zerrenda bat egingo dute. Horretarako jolas motak azalduko ditugu (azalpen, irudi eta joku adibideak erabiliz) eta mota bakoitzeko joku, jolas eta ekintzak garatuko dituzte.

00.00-00.30 5 kartulina egongo dira. Kartulina bakoitzean joku- jolas eta ekintza mota bat egongo da eta bertan, taldeka, beste joku eta jolas zerrenda bat osatu behar dute. Bertan jarriko dute baita ere ekintza edo jolas hori egiteko material zerrenda.

00.45-01.00 Joku, jolas eta ekintza horiek non egin ahal ditugu eskolan? Beraiek, nahi duten lekuetan kokatuko dituzte, gero irakaslea, patioaren kudeatzaileekin batera, analizatzeko kokapena eta jolas, ekintza eta joku hori egiteko behar den material eta espazioa ikusteko.

Materialak:

1. saiorako materialak:

- patio eta ekintza anitzen irudien eranskina
- Kartulinak
- Joko eta jolas ez sexisten gida
- errotulkiak

2. saiorako materialak

- Paper estraza
- Errotulagailuak
- joku eta espazio erlazioaren eranskina
- bost kartulina (joku anitzak)

Materialak eta fitxak eskuragarri izango dituzue webgunean: <http://hezkidetza.aisialdisarea.org>